



Artikutzako ttanttak



4

Zenbakia
2012ko Udazkena - negua

Telefona: 690 720 264
(Astelehenetik ostiralera, 10:00 - 16:00)
www.donostia-artikutza.org
artikutzanatura@donostia.org



a



urkibidea

ELKARRIZKETA

Antton Gamio Indakoetxea.....4

HARITIK TIRA

Udazken koloretan.....9

ARTIKUTZA IRUDITAN

Beltzuntzatik.....10

BILDUMARAKO

Baso igel gorria, *Rana temporaria*.....12

BARRU-BARRUTIK

Badatoz udazkena eta negua.....13

ARGAZKI GALERIA



Ikarrizketa

Antton Gamio Indakoetxea.

Artikutzako historia ezezagunaren ikerlari.

Artikutzak historia luzea duela aditzera ematen digute bertako parajeetan aurkitutako aztarnak: harrespil, mugarri eta burdinolek esaterako. Artxiboetan murgilduz gero, zaila da bertako historiaren berri ematen duten datuak topatzea. Ikerlarien esanetan lehenengo datu idatziak XIII. mendean hasten badira ere, antzinako datu hauek interpretatzen jakitea eta lotura ematea ez da

Argazkia: Jesús Rubio



lan erraza. Ale honetako gure elkarrizketuak artxiboak eta mendia ditu gustuko eta bai batean eta bestean Artikutzari buruz datu esanguratsuak bilatuz ibiltzen da lanak libre uzten dion garaian. Bertako semea izanik gainera, hainbat txoko eta datu harrigarri erakutsiko dizkigula ziur gaude....

Artikutzako meategien inguruan ari zara azken aldi honetan ikertzen, zein garaitakoak dira Artikutzan lehenengo meatzeen kontzesioak, eta zein urtetakoak dira azkenak? Kontzesio hauek pertsona desberdinek zeuzkaten?

Haizeolak elikatzeke hasiera batean, eta XIV. mendetik XIX. mende erdira arte bertako burdinolak hornitzeko erabiliak, Artikutzako meatzeak beste urte batzuetan landuak izan ziren, Donostiako Udalak Artikutza erosi zuen arte.

1846an Nafarroan ezarri zen lurraldeko meatzeen erregistro berria, eta itxi arte, 1968an, bertan jaso ziren Nafarroan emandako meatze-kontzesio eskaerak, Artikutzakoak barne.

Artikutzako lehenengo meatze-kontzesioa, 2 zenbakiduna eta *La Cortesana* izenekoa, 1846ko urtarrilaren 30ean eman zitzaion Iruñako Pedro Esteban Gorriz-i, *Otsozulueta*ko parajeetan, beruna ateratzeko, 14.000 m²ko azalerakoa. Emaitzak eskasak zirela ikusita, 1847ko abuztuaren 21ean, Gorriz-ek itxi egin zuen meatzea.

Azken meatze-kontzesioa, berriz, 2478 zenbakiduna eta *Coto de Elama* izenekoa, 1920ko otsailaren 18an eman zitzaion Antzuola-ko Francisco Leturia Bolinaga-ri, *Elama-Goizarin* parajeetan, burdina ateratzeko, 1.480.000 m²ko azalerakoa.

1846tik 1920ra bitartean 133 kontzesio eskaera egin ziren Artikutzan meatzeak ustiatzeko. Kontzesio bakarra zuten 46 kontzesiodun izan ziren, 2 kontzesio zuten 11 kontzesiodun, etab. Kontzesioetan txapelduna Donostiako Daniel Tornero izan zen 30 kontzesio eskuratuz.

Laburbilduz, Artikutzan emandako meatze-kontzesioen eskaerak honela sailkatuko genituzke:


•1846tik 1898ra bitartean, Nafarroan jasotako 500 kontzesio eskaeratik Artikutzari 43 zegozkion (% 8,6).

•1898tik 1904ra bitartean, Nafarroan jasotako 1339 kontzesio-eskaeratik 74 Artikutzari zegozkion (% 5,5). Espainiak bere azken koloniak galdu zituenen (Cuba, Filipinak) nabarmena izan zen indianoen itzulera, bere diruz estatuko ekonomia bultzatu zutelako.

•1904tik 1912ra bitartean, Nafarroan jasotako 359 kontzesio-eskaeretatik bakarrik 4 zegozkion Artikutzari (% 1,1). Garai hau izan zen emankorrena kiskalitako minerala, trenez, Elama-tik Erretereria-ko Norte-ko geltokira garraiatzen. Baina Artikutzako meatzeak agortuta zeuden jadanik.

•1912tik 1920ra bitartean, Nafarroan jasotako 280 kontzesio-eskaeretatik 12 Artikutzari zegozkion (% 4,2). Kontzesio-eskaera hauek ez ziren benetan meatzeak lantzeko, espekulazio kutsua zuten. Hiriko uraren kantitatea eta kalitatea bermatzeko, Donostiako Udalak Artikutza erosi zuen 1919. urtean, baina lehenagotik zabaldua zegoen erosteko asmo hori, eta kontzesiodun batzuk egoera aprobetxatu nahi izan zuten. Artikutzako jabe bilakatu zenean, kontzesiodunek Donostiako Udalarari proposatu zioten uraren kalitatea mantentzeko bere meatzeak martxan ez jartzea diruaren truke. Nahiko eztabaida izan ondoren, Donostiako Udalak Gobernazio Ministroarengana jo eta lortu zuen ez ametitzea kontzesio berri gehiago Artikutzan.

NAFARROAKO MEATZE KONTZESIOAK



Artxiboetan bilatzen ibili zaren dokumentazioa aztertuz, zenbat meatze izango ziren martxan aldi berean? garai haietan meatzetan lanean aritu zen pertsona kopuruaren daturik ba al dago?

Meatze-kontzesio eskaera guztiak ez ziren gauzatzen: meatze-mugak ondo kokatu gabe uztea, martxan zegoen beste meatze baten mugak gainditzea, aurreratu behar zen fidantza ez ordaintzea, ... arrazoi nahikoa zen kontzesioa ukatzeko.

Burdinola bakoitzak 4-5 langile zituen bitartean, zeharkako lanpostu askoz gehiago sortzen zituen: meatzariak, baso-mutilak, ikazkinak, garraioliariak, etab (Elama-ko burdinolaren jabea, adibidez, 24 idi edukitzeko baimendua zegoen bere garraio lanak egiteko). XX. mendearen hasieran, burdinolarik gabe, mehatzeek, zerrategiek, ikatzak, trenak ..., langile asko bilduko zituen Artikutzan.

Batik bat burdin meatzeak baziren ere, zein beste material atera zuten? Nora komertzializatzen zen? Zertarako batik bat?

133 kontzesiotatik 105 burdina ustiatzeko ziren, 18 beruna eta 7 kobrea.

Kaolina ustiatzeko meatzea ere izan zen Artikutzan. 1844an, Martin Antonio Belarra Irisarri-k, Igantziko bere loza fabrikarako Artikutzako lur zuri batzuk ustiatzeko baimena eskuratu zuen.

Argazkia: Margi Iturriza



Lurtxuri parajea, aterpetxe inguruan, ikus daitezke gaur egun ere, kaolinaren arrastoak.



Artxiboetako dokumentuetan aurkitu dituzun meatzeak lekuan bertan bilatzera joan zarenean, naturak janda aurkituko zenituen ziurrenik, baina hauen inguruan egiten ziren eraikuntzen arrastoak agerian al daude edo desagertu dira? zeren eraginez?

Artikutzako meatze inguruko arrasto ezagunenak Elama eta Goizarin-go burdinolen orubeak, Elama eta Errenteria-ko Norte-ko geltokia lotzen zuen trenbidea, eta Labeta-ko labe-garaia dira. Mendietan zehar hain ezagunak ez diren minerala kiskaltzeko labeak, baztertutako zepadiak, minerala garraiatzeko bideak, ikatza egiteko milaka txondor-plaza, harrizko etxolen orubeak eta abar ere aurkitu daitezke. Denbora eta natura normalean nahikoak izaten dira gizakiaren lana suntsitzeko, baina batzuetan honen laguntza ere jasotzen dute: adibidez, 1970eko hamarkadan Labeta-ko labe-garai bat bota zuten bere harriak erabiliz zubi berri bat eraikitzeko.

Artikutzako ttanttak buletinaren 2. alean Antton Mendizabal eta Juanjo Olaizolak kontatu ziguten bezala, Ferrokarrilaren hastapenak 1894 urtera garamatza. Baina garai hau baino lehen meatze hauetako mineralaren garraioa nola egiten zen azaltzen duen datu edo arrastorik aurkitu al duzu?

XIV. mendean Artikutzako meatzeek bertako burdinolak hornitzen zituzten. Nafarroa erresumako erregeak, Carlos IIa, 1376an burdinaren monopolioa ezarri zuen: erresumako burdinolek ekoiztutako burdin guztia erregeari saldu behar zioten, erregeak ipinitako salneurrian. Artikutzako burdinolek Lesakako biltegian utzi behar zuten bere ekoizpena. Beraz, garai hartan Bidangoko bidetik burdinez betetako makina bat gurdi pasa izango zen.


Idi-pare batez tiratutako gurdia izan zen denbora luzez burdin garraioan erabilitako sistema, eta XIX. menderaino luzatuko zen.

XIX. mendearen bukaeran Olazubieta-tik abiatu eta Eskas ingururaino iristen zen trenbidea ere eraikita zegoen, aberez bultzatutako bagonetak garraiatzeko, sigi-saga mendian zehar, 250 metroko altuera gaindituz.

Aire-kableak alde batetik, plano-makurrak, bestetik, aztarna batzuk oraindik ikus daitezke Artikutzan.

Artxiboetan murgiltzean aurkitutakoaz gain, aski ezaguna duzun paraje honetan, zein izan da gehien harritu zaituen aurkikuntza?

Elama, Goizarin, Artikutza, Urdallue eta Egazki dira Artikutzako burdinola ezagunenak. Nire ustez beste pare baten aztarnak ere ikus daitezke, kanala eta guzti, bata Maizolope-n eta bestea Erroiari-n. Bestalde, Artikutza auzoko parajea, Goizarin-go beheko belardia, Maizolope-ko zelaia, Erroiari-ko ur-jauziaren gainaldeko zabala ..., bertako meatzeak ustiatuz eta mendia hustuz lortuak dira.



Gaur egungo isiltasuna eta lasaitasuna ikusiz, zaila egiten zaigu imajinatzea Artikutzan eman zen mugimendua mendetan zehar: hainbeste burdinola, meatzeak, baso-mutilak, ikazkinak, etab. Aldi berean, Artikutzaren erabilpenaren eskubideak (artzaintza, ehiza, arrantza, egurra) direla eta, bere jabe desberdinek auzi franko izan dituzte betidanik inguruko herriekin, Goizuetarekin batez ere, askotan epaileen aurrean ikusiak. Aipagarriena, XX. mendearen hasieran Artikutzako jabeak, Acillona-ko markesa, Donostiako Udalarekin izandakoa, hiria urez hornitzeko arazoarekin. Donostiako Udalaren kalbarioa amaitu zen markesa hil ondoren bere oinordekoek Artikutza saldu ziotenean.



Argazkiak: Margi Iturriza



Udazken koloretan ...

Udazkeneko argia berezia da, basoak kolore ikusgarriak bereganatzen ditu, garai honetan ohikoa izaten den hego haizeak inguruko mendien soslaiak nabarmendu eta etengabe eraldatzen diren paisaieiz gozatzeko aukera eskaintzen du. Hostoen erortzeak zuhaitzen adarrak biluztu eta ordura arte hostoek ezkutatu duten hodeiertza agerian geratzen da. Urtaroen joan etorria egutegian finkatua egon arren, hostoen kolore aldaketa eta erorketa faktore askoren menpe dago; argi kopurua, tenperatura edo ur eskuragarritasuna, besteak beste. Garai honetan argi kopuruaren murrizketarekin batera, etengabe elikagaia ekoizten aritu diren pigmentu berdeak desagertzen hasi eta ordura arte ezkutuan egon diren kolore gorrixka-marroiak azaleratzen hasten dira. Kolore aldaketari erreparatuz gero, antzemango duzu mendian aldaketa, argi artifizialez hornitutako hiri eremuetan baino azkarrago ematen dela. Agian konturatuko zinen, udazken guztiak berdinak ez direla, batzuetan hostoak distiratsuago agertzen dira eta denbora luzeagoz irauten dute adarretara itsatsirik: udazkeneko egun bero eta gau freskoek hostoen koloreak deigarriagoak izatea eragiten dute. Baina aurtengoa bezalako uda lehorraren ostean ziurrenik udazkeneko gure basoetan kolore marroia izango da nagusi.


Zuhaitzak lozorroan sartzen diren garai honetan basoan badira azaleratzen hasten diren biztanleak ere: Perretxikoak, hain zuzen. Beren kolore, usain eta forma deigarriek eta horren baloratua den balio "gastronomikoak" jende asko erakartzen du basora perretxiko bila, baina organismo hauek

basoan betetzen duten oinarrizko funtzioa ezin da alde batera utzi. Ba al zenekien Lurreko landareen %95 onddoren batekin sinbiosian bizi dela? Harreman honi esker ura eta sustantzia mineralak errazago xurgatzen dituzte eta patogenoekiko duten babesa ere indartu egiten da. Beste onddo batzuek ordea, hildako materia organikoa lurzoruko biziaren garapenerako funtsezkoak diren elementutan deskonposatu eta lurzorua ongarritzen dute.

Perretxikotara joatean saskia eramatea ez da moda edo kapritxo hutsa, saskiak erabiliz esporen barreiatzea ahalbidetzen da, onddoen ugalketa bermatuz. Bestalde, ale heldugabeak ez jasotzeak eta soilik ezagutzen ditugun eta erabiliko ditugunak biltzeak ere, organismo hauengan sor dezakegun eragina gutxitzen du. Guztion zeregina da perretxikoen biziraupena bermatzea.



Haizearen bidez barreiatzen diren esporak, lurrra erori eta bertan denbora luzea igaro dezakete baldintza egokiak eman eta ernaltzen diren arte. Orduan, lur azpian adarkatzen dioan hari itsurako egitura (hifa) garatzen da eta hau aurkako sexuko beste hifa batekin elkartzean lurrazalean ikusten dugun perretxikoa sortuko da, ziklo berri bati hasiera emanez.



Argazkia: Jesús Rubio



Beltzuntatik, Baztan aldeko mendi eta bailarak.

bilduma fitxa




Baso-igel gorriak Euskal Herrian duen banaketa-mapa. Iturria Elhuyar aldizkaria (Joxerra Ahiartza)

BASO IGEL GORRIA *Rana temporaria*

Igel honek, igel berdeak ez bezala, lehorrean igarotzen du ia bizitza osoa, baina ugaltzeko putzu edo ur geldoetara abiatzen da. 10 cm izatera irits daiteke eta Artikutzako baso hezeetan aurki dezakezu. Anfibio guztiak bezala, lehortzeko arriskutik babesteko duen ezkata, ile edo lumarik ez du; baina bai azala hezea mantenduko duten "muki" antzekoa jariatzen duten guruinak. Ilunabar eta gautar ohiturak dituen arren, hemen, prezipitazioak ugari direnez eta tenperaturak ez oso altuak, egunez ikustea erraza izango zaizu; nahiz eta hosto edo goroldio tartean edo putzuetako lokatzetan ezkutatu den bero egiten duen egunetan eta baita negua igarotzeko ere. Intsektu, armiarma, zizare edo barraskiloak jaten ditu eta 10 urte bizitzera hel daiteke.

Argazkia: Margi Iturriza



Mutur biribildua eta begi-nini horizontala.

Erraz bereiz dakioken tinpanoa.

Argazkia: Margi Iturriza



Aurreko hanketan lau hatz aske. Saihetseko tolestura bizkaraldean eta garatxo likatsuak. Azalaren kolorea aldakorra du eta maiz, ikusezina suertatzen dira.

Atzealdeko hankak sendoak ditu eta hauei esker bere gorputzaren neurria baino 10 aldiz luzeagoak diren saltoak egin ditzake. Bost hatzak mintz batek lotzen ditu, igerian ikusterakoan konturatuko zara zein baliagarria den!

Argazkia: Margi Iturriza




Ezaugarri nagusientakoak dira begi aurretik besoetara doan orban ilun hau eta atzeko hanketako zeharkako marrak.

Otsaila aldean arrak lehiari ibiliko dira emeak harrapatu nahian. Lortzen dutenean besoetatik estutuko dute emea eta honek barnean dituen arrautza poltsak askatzerakoan, arrak esperma gainetik botako die ernaltzeko. Emearen tamainak zeresan handia du erruten dituen arrautza kopuruan, eta 500 eta 4000 arrautza inguru izatera hel daitezke.

Argazkia: Richard Bartz



Argazkia: Margi Iturriza



Arrautzak estalki garden batek babesten ditu. Uretan hidratatzen dira eta masa lirdingatsua osatzen dute. Arrautzaren zati iluna gora begira kokatuko da, eguzki izpiak hobeto jaso eta enbrioiaren garapena bermatzeko. Artikutzako bideetan sortzen diren putzuetan begiratu, erraz ikusiko duzu. 3 edo 4 astetara eklosioa gertatuko da eta zapaburu txikiek 4-5 hilabete beharko dituzte guztiz garatzeko.



arru barrutik

Badatoz udazkena eta negua.

Bareen ernalketa prozesua gauza bitxia da: bi bare elkartu, eta garai honetan mendian maiz ikus daitekeen masa likatsu zurixka batean bildu eta elkar ernaltzen dute, ondoren lur azpian 100-500 arrautza inguru jartzeko.

IRAILA



URRIA



Kolore, forma eta usain ezberdinekoak, jan-garriak edo pozoitsuak, baina denek funtzio garrantzitsua dute basoan: materia organikoa deskonposatu.

AZAROA



ABENDUA



Neguan azerien ilajea aldatu egiten da, hotzari aurre egiteko ile lodi eta luzeagoak garatuz. Urtarrilean izaten da araldia, beraz, urtean zehar azeria banaka ikusten bada ere, garai honetan bikoteka ikustea ez da harrizkoa.

URTARRILA



Eramua edo ereinotzaren antzeko hostoak edukitzeagatik Ereinozki bezala ezagutzen den landare hau izaten da loratzen lehenetarikoa. Udaberria urrun ez dagoela adierazten digu! Piper belar bezala ere ezagutzen da; usain itzazu bere hostoak, eta jakingo duzu zergatik!

OTSAILA






Argazkia: Margi Ituriza

Uda giroaren luzapena

Grafikoa ikusita erraz ulertuko duzu argazki hauen zergatia. Urtarrila eta apirileko hilabeteak salbu, jasotako euri kopurua, batezbestekoaren azpitik egon da, eta hilabeterik lehorrena uztaila izan da, 25,5 l/m²-ko prezipitazioekin.



Argazkia: Iñaki Uranga

Urtegi ura egunean 5 cm jaisten joan da, garai bateko karobia izan zena agerian utziz. Agian buletin hau irakurtzen duzunerako euria modu erregularrean egiten hasia izango da, eraikin hori berriz ere urpean geratuz.




2012

Argazkia: Iñaki Uranga



Argazkia: Fototeca Kutxa



Argazkia: Fototeca Kutxa

1988an, urtegia eraiki baino lehen bai-lara honetatik pasatzen zen Enobieta ibaiaren bi bazterrak lotzen zituen zubia agerian geratu zen. 1947an hasi ziren ibai horren izena daraman urtegia eraikitzeko lanekin.

argazki galeria

Artikutzan atera duzun argazki polit edo bitxi bat hemen argitaratua ikusi nahi baduzu, bidali helbide honetara: artikutzanatura@donostia.org. Argazkiarekin batera zure izen-abizenak, ateratako lekuaren izena, data eta argazkiaren izenburua jar itzazu.




Izenburua: Euriezaren ondorioak
Egilea: Margi Iturriza
Urtegiko urek, udako lehortea islatzen dute iraileko argazki honetan.



Izenburua: San Agustin eguna
Egilea: Alaitz Urizar
Abuztuaren 28a, ezohiko eguna Artikutzan.



Izenburua: Udazken koloreak
Egilea: Jesús Rubio
Gaztainondoa negurako prestatzen.



Izenburua: Familian
Egilea: Margi Iturriza
Beltzuntatik Loitzaterako bidean topatutako zaldi taldea.



Artikutzako Ttanttak buletina jaso nahi baduzu bidali zure datuak (Izen abizenak, helbide elektronikoa) artikutzanatura@donostia.org helbidera eta posta elektronikoko bidez jasoko duzu.